

Kontsumo taldeak

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua



Zein dira gure elikatzeko eta erosteko ohiturak? Irakurri batzuek diotena eta, ondoren, erantzun beheko galderari:

- Nik astero-astero herriko baserritar bati erosten dizkiot barazkiak eta fruta. Saski batean jartzen dizkit, eta dena garaian garaikoa da.
- Nik asteroko erosketa etxe alboan dudan hipermerkatu handian egiten dut, eta gainerako produktuekin batera erosten ditut barazkiak. Supermerkatuetan denetarik duzu, eta askoz erosoagoa egiten zait han erostea.
- Guk gaur egun barazkiak eta fruta etxean dauzkagu, baratza koxkor bat daukagu eta. Baina, batzuetan joan behar izaten dut etxe alboko dendara garaiko barazkiren bat erostera.

Zein da zure antzeko ohiturak dituen? Zertan zatoz berarekin bat eta zertan ez?

1- Bideoa ulertu

Kidekoop kontsumo-elkarteko Ander Lezamiz elkarrizketatu dute ondorengo bideoan. Entzun zer esaten duen eta ondoren, osatu laburpena hutsune bakoitzean hitz egokia erabiliz:



- 1- Prezio justua
- 2- Ekoizle
- 3- Produktuak
- 4- Garestiagoa
- 5- Barazki-saskiak
- 6- Ekologikoa

Anderrek kontsumo-taldean erostea erabaki du _____ delako, etikoa eta ekonomia soziala bultzatzen duelako. Gainera, elikadura burujabetza ezinbestekoa da bere ustez. Kontsumitzaileek _____ ordaintzen dutela uste du eta gainera, _____ zein izango diren eurek erabakitzen dute. Kontsumitzaileak nekazariekin elkarlanean aritzen direla esan digu Kidekoop-eko kideak eta _____ jarri ditu horren adibide nagusizat. Horiei esker, _____ horri bere produktuak kontsumituko direla ziurtatzen zaio.

Horrelako produktuak supermerkatu batean erostea _____ izango litzatekeela esan digu.

Eta, hain zuzen ere, kontsumo-elkartearen bidez lan egiten dute produktu ekologiko eta hurbileko hauek prezio justu bat izan dezaten.

2- Testua landu

Orain testua irakurriko duzu. Erreparatu nabarmendu ditugun ideiei:

Nola funtzionatzen dute kontsumo-taldeek?

Egunean 600 gramo barazki eta fruta jan behar omen ditugu, horixe gomendatzen dute behintzat. Baina zer barazki- mota kontsumitzen dugu? Egia da 'barazki ekologikoak' modan daudela gaur egun, jendeak gero eta garrantzi handiagoa ematen baitio erosten duen produktuari.

Askotan, barazki edo fruta ekologikoa eskuratzea garestia izan daiteke, edo ez dakigu non erosi behar dugun. Horren irtenbide dira egun kontsumo-taldeak:

gertuko nekazariak ekoiztako produktuak zuzenean erosteko osatutako kontsumitzaileen taldeak. "Beste modu batean kontsumitzeko elkargune bat da; produktu ekologikoak, etikoak eta hurbilekoak kontsumitzen ditugu", esan digu Ander Lezamiz bilbotarrak. Bera hiriko Bilbo Zaharra auzoan dagoen Kidekoop kontsumo-elkarteko kidea da. "Gurea, kontsumo-taldea baino gehiago, kontsumo-elkartea da. Izan ere, bazkideek **dendan bertan jasotzen dute** gure webgunean eskatutakoa, eta, bila pasatzen direnean, gauza gehiago erosteko aukera dute".



Funtzionamendua

Kontsumo-talde guztiek modu berean funtzionatzen dute: **garaiko produktuekin osatutako saskia prestatzen dio astero baseritarrak kontsumitzaileari**, eta horiek **hilaro kuota bat ordaintzen dute** zerbitzua jasotzeagatik. "Guk aplikazioa eta webgunea ditugu, eta eskariak horren bidez egiten ditu Kidekoopetako bazkideak. Astartetik ostegunera bitartean dendara etor daitezke erositakoaren bila, eta produktu gehiago ditugu bertan salgai: pasta, txokolatea, gazta, garagardoa, kafea...".

Duela lau urte jarri zuten martxan proiektua: "Auzoan ez zegoen supermerkatuik, ezta ekoizleekin zuzeneko harremana zuen saltokirik ere. Bilboko Alde Zaharrean, ordea, hainbat aukera zeuden. Beste modu batean kontsumitzeko eta elikadura gune estrategikoa dela uste dugulako sortu genuen Kidekoop".

Bilakaera

Lauzpabost ekoizle eta 15 pertsona inguru ziren kontsumitzaileak hasiera hartan: "Proiektua asko handitu da, izan ere, 30 edo 40 ekoizlek osatzen dute taldea eta kontsumitzaileak 100 inguru gara". Gero eta produktu gehiago kontsumitzeko aukera eskaintzen dute, nahiz eta saskia beti den oinarria: "Saskia oso garrantzitsua da guretzat, ekoizleari barazkien produkzioa antolatzen laguntzen diolako eta bere lanaren bermea delako. Gainera, saski erdia edo osoa eros dezakegu".

Anderren ustez, biek irabazten dute: "**Kontsumitzaileak badaki zer ordaintzen ari den eta ekoizleentzat diru-iturri finko bat da.** Esnearen kasuan, adibidez, guk litroa 0,90 euro ordaintzen diogu nekazariari, eta industria handiek 0,13 edo 0,14 euro". Kontsumo-taldearen kasuan, **ekoizpen txikiak izaten dira eta harremana zuzena.**

Modan

Europar aspalditik funtzionatzen dute kontsumo-taldeek, baina Euskal Herrian une honetan modan dagoela esan daiteke. "Arriskua zein den argi daukat: guztiok ekologikoa erosi eta duen balioa galtzea. Nire ustez, ekologikoa izatea garrantzitsua da, baina garrantzitsuagoa da **hurbileko produktua izatea.** Zer dugu nahiago, 300 kilometro egin dituen letxuga ekologikoa edo hemen ekoiztia eta berme batzuekin erositako letxuga, ekologikoaren zigorik ez badu ere?"

Anderrek irizpide batzuk argi ditu, eta horrexegatik da Kidekoop kontsumo-elkarteko kidea:

"Helburua elikadura burujabetza lortzea da, nire ustez, alor estrategikoa baita".

Behean dituzu aurreko orriko irakurgaiak kontsumo-taldeei buruz aipatu diren zenbait ezaugarri. Ordena itzazu zuretzat duten garrantziaren arabera.

- | | |
|---|---------|
| ● Produktuak hurbilekoak dira. | 1. |
| ● Prezio justua dute. | 2. |
| ● Garaiko produktuak dira, eta ekologikoak. | 3. |
| ● Ekonomikoki, baseritarrentzat lagungarria | 4. |
| ● Kontsumitzailearentzat eroso da honela | 5. |
| ● Produktuak bertakoak dira. | 6. |

3- Mintzamena

Jarri binaka eta erantzun galderai. Ondoren, komentatu talde handian.

1. Zure inguruan badago kontsumo-talderik? Zein?
2. Kontsumo-talderen bateko kide zara? Edo bazkide izan nahi zenuke? Eman arrazoiak.

Kidekoop kontsumo-elkarteak duen eskaintza oso zabala da: <http://kidekoop.org/eu/proiektua/>
Begiratu produktuen zerrenda eta ondokoarekin komentatu:

Zer erosiko zenuke?

Ekologikoa den zein produktuk harritu zaitu gehien?

Zerbait falta dela uste duzu?



1- Bideoa ulertu

Anderrek kontsumo-taldean erostea erabaki du **ekologikoa** delako, etikoa eta ekonomia soziala bultzatzen duelako. Gainera, elikadura burujabetza ezinbestekoa da bere ustez. Kontsumitzaileek **prezio justua** ordaintzen dutela uste du eta gainera, **produktuak** zein izango diren euren erabakitzen dute. Kontsumitzaileak nekazariekin elkarlanean aritzen direla esan digu Kidekoop-eko kideak eta **barazki-sakiak** jarri ditu horren adibide nagusitzat. Horiei esker **ekoizle** horri bere produktuak kontsumituko direla ziurtatzen zaio.

Horrelako produktuak supermerkatu batean erostea **garestiagoa** izango litzatekeela esan digu. Eta, hain zuzen ere, kontsumo-elkartearen bidez lan egiten dute produktu ekologiko eta hurbileko hauek prezio justu bat izan dezaten.